

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI

Arantza Urkaregi Etxeparek, EH Bilduko bozeramaile ordeak, *Genero Eraginaren Aurretzako Txostenen luzetarako azterketa eta ebaluazioari* buruzko **IDATZIZKO ERANTZUN ESKEA** egiten dio Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailari.

ARRAZOIKETA

2021eko ekainean dokumentazio-eskaera egin nion Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari, 2019an eta 2020an egindako Genero Eraginaren Aurretzako Txostenen Ebaluazio Txostenak eskatu.


Uztailean jasotako erantzunean adierazten zen txosten horiek egin gabe zirela (Covid-19ren pandemiaren eraginez), baina, horretaz gain, aipatzen zen berdintasun Zuzendaritza barne-hausnarketa prozesu bat egiten ari zela, Genero Eraginaren Aurretzako Txostenen inguruan, beren aplikazioa zuzentzeko eta hobetzeko.

Erantzunaren 4. puntuan zehazten zen "Berdintasun Zuzendaritzak, 2019ko, 2020ko eta 2021eko Genero Eraginaren Aurretzako Txostenen luzetarako azterketa eta ebaluazioa hasi duela. Urte askotarako azterketa horrek, metodologian erreformak ulertu eta diseinatzeko behar den denbora-perspektiba emango du. Txosten hori Batzar Nagusietan aurkeztuko da."

Horren harira, **IDATZIZKO** ondoko **ERANTZUN ESKEA** egiten diogu Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari:

- 2019ko, 2020ko eta 2021eko Genero Eraginaren Aurretzako Txostenen luzetarako azterketa eta ebaluazioa amaituta al duzue?
- Zeintzuk dira ateratako ondorioak?
- Kontuan hartuta Batzar Nagusiak desegiteko direla apirilaren 4an, Noiz aurkeztuko duzue azterketa eta ebaluazio hori Batzar Nagusietan?
- Azterketa eta ebaluazio hori publikoa egingo duzue Bizkaia Gardena web orrian? Horrela ez bada, zeintzuk dira Bizkaia Gardena web orrian ez argitaratzeko arrazoiak?

Bilbon, 2023ko martxoaren 23an



Arantza Urkaregi Etxepare
EH Bildu taldeko bozeramaile ordea